

LEHEN, ORAIN ETA BETI

ABERRIA!

ADIERAZPENA





1932ko martxoaren 27a, milaka pertsona Bilboko kaleetara irten ziren ordura arte aurrerikaririk izan ez zuen ekitaldian parte hartuzera, euskal nazio nortasuna aldarrikatzeko egin zen lehen ospakizunean, hain zuzen. Halaxe sortu zen ‘Aberri Eguna’, euskal nazioaren egun handia. Harrezkero, Euskadi deitzen den bizi proiektu honek batzen gaituenok urtero partekatzen dugun ospakizuna da, Pirinio mendien alde bietan sustraiak dituen Nazioa gara, bere etorkizuna askatasunez eta demokrazian erabakitzeko eskubidea duena, munduko gainerako herri eta nazioen baldintza berberekin.

Une hartatik hona, hiru mende laurden georago, ez da urterik igaro edo aukerarik eman, askatasun egoeran edo diktaduraren pean, Euzko Alderdi Jeltzaleak egun horretan Euskal Herriaren askatasuna eta bere adierazpen politiko eta instituzional osoa aldarrikatu ez duenik. Eta berdin egiten jarraituko dugu, gure buruari jarri diogun helburu hori erabat lortu arte. **Lehen, orain eta beti: Aberria!**

AURRETIK SUMATU EZIN DEN ETORKIZUNA

Eskarmentuak erakutsi digu etorkizuna ez da goela aurretik sumatzerik. Hala erakusten digute orainak eta mundua ustekabeen eraldatzen eta labirinto bihurtzen duten gertakariak ere, sumagarri irudituhala zaiguna abiada bizian desagertzen delako. Efektu global horrek oso bizkor derrigortzen gaitu aurrera egitera.

Dorre Bikien kontrako eraso terroristatik gaur egunera arte, planeta osoan aldaketa etengabeak bizi izan ditugu. Nazioarte mailako ikus-

kera honetan aldaketa horien erakusle gisagogora ditzakegu Irakeko inbasioa, ‘Arabiar Udaberria’ izenarekin ezagutu genuen hartan hautsi ziren itxaropenak, Mediterraneo itsasoaren bestaldean sortu diren gatazka berriak,terrorismo molde berriak, errefuxiatuen exodoa, krisi finantzarioa eta inguruak nola kutsatu dituen, mendebaldeko demokraziak bizi duten uzkuzte ekonomikoa, Europak tentsioie aurre egiteko orduan erakutsi duen ezintasuna, protekzionismoarako joera berria, xenofobia, Brexita, Estatu nazionalen indartzea, Errusiarren kontraboterea, ‘guda hotz’ berri baten mehatxua...

Mundu irekiagoa espero genuenean elkar banatzeko harresi berriak aurkitu ditugu. Harresiak eta ‘kontzertinak’. Ezberdinarekiko beldurretik elikatzen diren populismoak, autarkiara itzultzea aldarrikatzen dutenak ‘salba dezala bakoitzak bere larrua’ aldarriak gidatuko balitu bezala.

Gure inguruan gertatzen den honek guztiak euskal herritarroi ere eragiten digu oso erazuzenean. ETAre indarkeriaren amaieratik hasita eta, burbuila ekonomikoa zulatu eta atzeraldi ekonomikoz latzaren ondorioz Espainiako estatuan kontsumoak behera egin duenez geroztik, nazioarte mailan merkatu berriak bilatu beharreraino.

Esparru politikoan ere bai.

EUSKADI ETA EUROPA

Sabino Arana abertzaletasuna eta bere tresna politikoa, EAJ, sortzera eraman zuten arrazoi intimoak aztertzea sartzan bagara, aterako



dugun ondorio nagusia izango da bere proposamenaren xede nagusia zela egitismo politiko burujabea eraikitzea, Euskadi, bere patuaren jabe izango zen herria. Ordutik hona nahi horrekin bat egin dezakeen formula bilatu izan da. Estatu propiotik hasita eta Europa mailan nazio federatu baten proposamena planteatzeraino. Gaur egun, egitura juridiko politikoa zehazteke dago. Eta ez da izan buruzagi abertzaleek nahi izan ez dutelako, baizik eta gure inguruko eszenatokiak garapen iluna daramalako.

Europa mailan batasun politikoak finkatzen hasia zela ematen zuen momentuan, denon erronkei erantzuna emateko asmoari heldzeko orduan Estatuak beren burujabetzaren zati bat lagatzekotan egon diren une horretan, Europaren krisiaren lekuko izan gara eta estatuetako egiturak indartzeaz batera atzera egiten gurela ikusi ahal izan dugu.

Efektu errektibo hori Espainiar estatuan ere antzeman dugu eta, 'erreskate' finantzarioa eta batasunaren ondorengo esku hartzea saihesteko aitzakiapean, austeritate neurriak garatu dira eta birzentralizazio politikoa eman da. Mugimendu zentripetua izan da, beste behin ere, orain artekoa baino are indar handiagoarekin, Euskadi eta Catalunya-ren nazio nortasuna aitortzen eta errespetatzen ez duen Estatuak bizi duen krisia agerian utzi duena.

Euskadi, estaturik gabeko nazio honen etorkizunak Europan jarraitzen du. Baina oraindik ez dakigu nola garatuko den.

Europar Batasunaren proiektu bateratuak krisi politiko, ekonomiko eta humanitario larriak bizi dituen une honetan, Europar Batzordeko presidentek berak 'Europaren etorkizunari buruzko Liburu Zuria' izenburupean "abidura ezberdinak" aurreikusten dituzten bost eszenatoki Europa osatzen duten Estatu-tako hiritarrek eta gobernuekin "elkarrizketa prozesu" baten hasiera gisa planteatzen duen agiria idaztera eraman duelarik, argi eta garbi dago Batasunak berak darabiltzan eskemetan ez dela aipamenik egiten, Estatu egiturarik ez dugun arren, Europa bai osatzen dugun nazio garenon inguruan.

Hori dela eta, guztiz egokia da gogoratzea Agirre lehendakariak Parisen, 1949an, orduko gorputz diplomatikoaren aurrean esan zuena, Schumanek "nazionalitateen arazoa Europar Federazioaren aurrean" gaiari buruzko adierazpena egin baino urte bete lehenago, hain zuzen. Agirrek oinarritzat hartu zuen "askatasuna nahi duten herriek askatasun hori ahalbidetuko dien prozesu baketsu eta juridikoa aurkitu ahal izango dute" aipua, "horretarako borondate eta gaitasun politiko nahikoa izango duten herriek aske izateko eskubidea dutela ezartzen duen arau juridiko orokorra" abiapuntutzat hartuta. Oinarri horrekin ezarri zuen beharrezkoa izango zela "nazionalitate batek bete beharreko baldintzak eta herriaren borondatearen benetako adierazpenak ezartzea". Horrek denak suposatzen zuen "ezarritako baldintza horiek beteko zituzten nazionalitateen eskariak aintzat hartzea".

Batasunaren sorreraren hirurogeigarren urteurrena ospatu delarik, gogoan izan behar





dugu Estaturik gabeko nazio errealtateek egin dugun bidea oso mugatua izan dela eta Batzordetik egin izan diren proposamenak, nazioen benetako federazioari bidea eman beharrean, ematen du babesa bilatzen dutela Estatuetik solaskidetzazuzenean, Estaturik gabeko nazioak albo batera utzita. Ondorioz, guk Agirre Lehendakariak ezarri zituen printzipioak indarrean daudela aldarrikatzen dugu eta gure bokazio europazalea eta erabat demokratikoa berresten dugu eta, demokratikoa delako, Europa osatzen duten herri eta nazioen borondateari erantzun beharko dio.

Era berean baieztatzen dugu Europak 'barrrutik' hedatzeko aukera aitortu behar duela, Agirrek berak esaten zuen eran "Askatasuna nahi duten herriek askatasun hori aurkitu ahal dezaten" eta "ezarritako baldintzak beteko dituzten nazionalitateen aldarrikapenak" onartuak izan daitezten. Baldintzak ezarrita daude jada: Kopenhageko irizpideak. Zentzu demokratikorik al du Batasunaren parte den nazio bati ukatzeak beste nazio bati 'ex novo' sartzekoan eskatzen zaizkion baldintza berberekin sartu ahal izatea?

NAZIO KONTZIENTZIAK AURRERA EGIN DU

Trantsizio garaia bizi dugu, eta gaur egun hartzen gaituen egoera inguratzen duen ziurgabetasunak ahalbidetzen du gaur arazo aurpegia dakarrena bihar aukera bihurtu ahal izatea.

2017ko Euskadi bi estaturen artean kokatzen da –Frantzia eta Espainia– eta hiru erreali-

tate politiko-administratibotan antolatuta dago. Baina, zatiketa horren gainetik ere, hiru esparru ezberdin horietan bizi den errealtate politiko eta instituzionalak baikortasun nahikoa ematen digu hiruren artean gero eta lankidetzaz handiagoa eman daitekeela pentsatzeko. Lankidetzaz hori emango da bakoitzaren hiritartasunari buruz har daitekeen errespetuan oinarrituta.

Iparraldeko euskal herritarrek, historia modernoan lehen aldiz, entitate administratibo propioa dute beren herrialde guztiak hartzen dituen. 'Elkargo Bakarra' deritzonak hartzen ditu Lapurdi, Zuberoa eta Behe Nafarroako 158 udalerriak eta, elkargo honen eraketa departamendu edo autonomi erkidegoarena baino ahulagoa den arren, erakundetzarako lehen urratsa da eta ilusioa eta itxaropena sortzen du Iparraldeko euskal herritarren.

Nafarroako Foru Erkidegoan, bestalde, aldatuta politikoa finkatzen ari da urteotan isolatuta eta mugakide dituen herrialdeei bizkarra emanda bizi ondoren. Aukera berria, lasaitasunez eta esku onez, konplizitate berriak ezartzeko eta topagune berriak bilatzen lagunduko duten oinarriko eskubideak berrezartzeko, hauen artean euskararen erabilera eta ikaskuntza/irakaskuntza. Inposaketarik gabe –urteotan guztian gehiegi izan direlako– baina bai demokraziarekin eta bizikidetzaz politikoa normalizatzeko behar den akordioarekin.

Eta Euskal Autonomi Erkidegoan, erakundeek etorkizunari begiratzen diote gehiengo kualifikatu batek hauteskundeetan eman du-



ten babesarekin. Akordio berria eraikitzeko oinarri zabala da, Estatus Berria, herri honen autogobernua areagotzeko.

‘Euskararen lurraldea’, Euskadi, besteekin partekatzeko moduko esparruak eta esperimentziak izaten hasia da.

Euskadik, euskal herritarren aberriak, gero eta masa kritiko handiagoa dauka. Txiki ikus gaitzaketen arren. Txikiak, bai, gure lurraldea txikia delako. Handiak gara gure borondatea eta aurrera egiteko dugun gaitasuna handiak direlako. Aurrera egiteko dugun borondatea eta gure justizia eta askatasun gosea handiak direlako.

Euzko Alderdi Jeltzalea, Sabino Aranak Euskadi nazio egitasmoa eraikitzeko diseinatu zuen tresna, Iruñean 1977ko martxoan egin zuen lehen Aberri Batzarraren 40. urteurrena ospatzetik dator. Guda eta frankismoaren ondorengo mugarrari hark lagundu zuen Euskadi berri baten zerumugarako oinarriak ezartzen, politikan, kulturen, antolakuntzan eta gizarte mailan. Lan handi eta zaila beneretan, garai hartan bizi zen egoera gogora ekartzen badugu.

Orduan proposatu genuen autogobernua berreskuratzea, “euskal Estatu autonomikoa” izango zenaren bizkar hezurra eraikiaz, Euskal Nazio Berria lideratuko zuten erakunde berriekin. Eta, horren ondorio dira Eusko Jaurilaritza eta Eusko Legebiltzarra, Herri hau osatzen duten emakume eta gizon guztien hiru heren ordezkatzeko dituztenak. Horra hor foru aldundiak eta Batzar Nagusiak, gure Es-

kubide Historikoen oinarritzko muina. Horra hor udalak, herritarrengandik hurbilen dagoen errealtatea ezagutzen dutelako, beren arazo eta beharrak zuzenean eta eraginkortasun osoz kudeatzen dituzten toki gobernu ekintzaileak.

Orduan erabaki genuen urteotan erabat abailduta eta lur jota egon zen ekonomia berreraikitzea. Ekonomia Ituna berreskuratu genuen, herri honen politika ekonomikoak izan duen eta duen tresna berezia. Orduan zegoen industria berriak genuen eta berria prestatu eta eraiki genuen eta, bata bestearen ondoren etorri diren krisien gainetik, inoiz baino biziago dago orain, aukera egon daitekeen tokian lan berriak bilatzen, mundura zabalik dagoen merkatu globalari begira.

Une hartan ere, gure buruari ezarri genion euskara gure hizkuntza berreskuratzeko ahalginak biderkatzeko derrigorra. Eta frankismo garaia eraman zuen ahultasunetik altxatzea lortu dugu eta gero eta gehiago ikasia, ezaguna eta erabilia izanik gero eta gizarte euskaldunagoa daukagu; eta orain gero eta gehiago oihartzeko gara bere balioaz eta bere erabileraz erkidegoko hizkuntza ofizial den heinean.

Planteamendu estrategiko hura, demokrazia berriaren hastapenetan Iruñeko Batzar hartan ezarria, gogobetetz bete da. Nazioa egunez egun eraikitzeko hartu genuen konpromiso hari esker, gaur egun herri bat daukagu. Martxan dagoen nazioa, hobetzeko helburua duena. Hobetzea ekonomian eta gizartean. Gure inguruko herrialderik aurreratuenen





enplegu tasetara iristeko. Gure Barne Produktu Gordinean industriak duen pisua hazi arazteko. Zerbitzu publikoei eusteko eta ahal den neurrian eguneratzeko, osasunak, hezkuntzak, gizarte babesak eta segurtasunak hobeto bizi nahi duen eta hobeto bizitzea merezi duen biztanleria –oraingoa eta etorkizuneko– babes dezaten. Herri honetan bertan –Euskadin– nor bere proiektua, bere familia eta talde egitasmoa eraikitzeko aukera izan dezan, bakoitzak bere borondatea adierazteko eta bere ametsak nahiak eta de-sioak garatzeko bidea ikus dezan.

AUKERA BERRIA

Gaur, berrogei urte geroago, “euskal Estatu autonomikoa” hura egoera berrira proiektatzeko aukera daukagu, euskal herritarrak askeagoak izan daitezen, zoriontsuagoak izan daitezen beren bizi aurreikuspenekin.

Indarkeria aldia amaituta, aukera ezin hobea irekitzen zaigu helburu hori erdiestera eramango gaituen akordio berria lortzeko.

Iraganeko sufrimenduaren hondarrak gertatzen badira ere, erabakimen osoz itzali eta desagerrarazi behar ditugu. Pairatu dugun min horren ondorioak ez dira egun batetik bestera sendatuko. Biktimak artatzen jakin behar dugu, talde lana eta norbanako lana egin behar dugu min bidegabeta eta iraganeko hutsegiteak aitortzeko. Benetako birgizarteratze berria eraikitzen lagundu behar diegu giza eskubideak eta pertsonen bizitza eta askatasuna errespetatuko dituen gizartearen parte izan nahi duten guztiei. Amesgaiztoa-

ren amaiera egiaztatu behar dugu, pertsonentzat ekarri duen ezbeharrak gain, oztopo handia izan delako euskal herritarrei Herri gisa helburu berria identifikatzeko akordio politikoa lortzeko bidean.

Benetan uste dugu une hori heldu dela eta aukera hori ezin dugula alferrik galdu.

Legealdi hasi berri honek eginkizun bat ekarri digu: euskal autogobernua eguneratzea, Herri gisa ditugun eskubideak eta Estatu erakundeekiko harremanetarako Estatusa ezarri beharra ardatz hartuta. Catalunyan eta Euskadin subjektu politikoak legitimatzeko prozesu demokratikoak bideratu behar ditugu, nazio bakoitzaren burujabetzari zor zaion aitortzan oinarrituta, elkarri pare pare begiratzeko eskubidearekin eta ekitatean, elkartasunean eta bakoitzaren askatasunean oinarritutako lankidetzeta eta koordinazioa sustatuz. Nazio bakoitzak izan behar du, une oro eta dagokion egoeran, bere egitura politikoa, bere antolaketa administratiboa eta beste erakunde eta instantziekiko menderotasun edo independentzia zein izango den erabakitze eskubidea.

Politikan eta nazio eraikuntzan eraikitzen jakin behar da eta aukerak baliatzen jakin behar da, sen onez jokatuz, nortasuna galdu gabe eta nor bere indarrak zainduz. Horra hor Eskozia, Estatu izateko bideari berriz ere heltzen hasia dena. Brexita erabiltzen ari da Europan bere tokia bilatzeko, London hiriburua alde batera utzita. Guretzat ere aukera izan daiteke Europan izan nahi dugula baieztatzeko, Europan baina beste modu batean, ez



oraingo Espainiar estatuaren mende,baizik eta nazio burujabe eta autogobernatu gisa.

1998ko Bartzelonako Adierazpenean, Bloque Nacionalista Galego, Euzko Alderdi Jeltzalea eta Convergència i Unió alderdiok adierazi genuen alderdi abertzaleek, Espainiako alderdiek bezala, ulertu behar dugula herrien artean egon daitezkeen harreman politiko ezberdinak Europako errealitate berrian aldatzen direla. Orain, burujabetza, autogobernua, autonomia, independentzia, autodeterminazio eskubidea eta halako kontzeptuek dimentsio berria hartzen dute eta bestela formulatzen dira, baina aldaketa horrek denok ukitzen gaitu: estatu egitura izan ez arren nazio elkargoak osatzen dugunak eta gaur egun Estatu bat duten eta ordezkutzen dutenak.

1998an esaten genuen bezala, Espainiar Estatu birmoldatzeko egitasmoan aurrera egitekotan, ezinbestekoa da prozesu eta proiektuak konpromiso irmoa hartzea eta Espainiako alderdiek gure nazioen erabaki esparruak aitortzea eta errespetatzea, aitortze eta errespetatze horrek dakartzan aukera guztiak barnean hartuta (independentzia, konfederazioa, federazioa). Konpromiso bikoitz hori hartzeak baino ez digu birmoldatze prozesu horretan aurrera egiten lagunduko.

Estatu egiturak ez dira opari, sortu egin behar dira. Gu ez gara hutsetik hasten. Oso ondo garatu ditugu hezkuntza, osasuna eta gizarte babesa, ekonomia eta lan mundua eraberritu ditugu, euskararekin urrats berriak eman ditugu, gure ogasuna eta gure finantzak an-

tolatu ditugu. Gurea ez da edonolako eredu politikoa, eta alternatibarik ere ez daukagu.

Erabakitzeo eskubidea oinarri hartuta, EAJK gainerako alderdi politikoei aurkeztu dizkie euskal autogobernua eguneratzeko oinarri eta printzipioak; legezketasunarekiko errespetuak printzipio demokratikoa baldintzatu ez dezan, eta horrek esan nahi du euskal hiritargoak erabakiko duenak balio nagusi eta ukazina izango duela eta erabaki hori lege izango dela.

Politika publikoen exijentziarik gorena eta erabakitzeo eskubidea txanpon bakar baten bi aldeak dira. Kudeaketa eraginkorra, politika publikoen justizia sozialean oinarrituta, gizarte eraikuntzarako ezinbesteko baldintza da. Autogobernua eguneratzeko ekimenak euskal gizartearen arazoak eta erronkak konpontzeko behar diren tresna eta baliabide guztiak hartu behar ditu, eta muga bakarra izango da euskal hiritargoak berak askatasunez eta demokrazian erabakiko duena.

Euzko Alderdi Jeltzaleak bide hori partekatu nahi du gure ondoan ibili nahiko duten pertsonekin eta gizarte eragile guztiarekin. Bidea luzea izango da, konpromiso serioa eskatuko digu eta norabidea eta eman beharreko urratsak zehaztu beharko ditugu, baita ebaluatzeko denborak eta prozesuak ere. Proiektu horrek eraberrituko ditu gure itzaropena eta gure ilusioa, lorpenek ematen duten poztasunarekin eta konfiantzarekin. Gure erronka da Herri honek erabakiko duen





hori Madrilen defendatzea. Horra hor prozesu osoaren giltzarria. EAJ prest dago eta uste osoa du Euskadiren erabateko burujabetzarako bidea egiteko ahalagin hutsak baduela herri honen gehiengo iratzartzeko eta batzeko behar den indarra.

Gure proposamenak soberan ezagunak dira, horien inguruan eztabaidatzeko prest gaudela Legebiltzarrean eta gizartearen ahalik eta akordiorik zabalena lortzeko, Euskadi Europako Nazio izan dadin. Borondateak batzeko bokazioa dugu. Guk ez dugu gatazkarik eragin nahi ez barruan ezta kanpoan ere. Adosteko eta elkar ulertzeko borondate ukalezina dugu, baina ez dugu onartuko aurrera egiten eragotziko digun betorik.

Gure asabek irakatsi ziguten bide honek helmugara eramane behar gaituela, Euskadiren askatasunera, alegia. Gure eginkizunak begi bistatik kendu gabe, ezeri uko egin gabe, baina unean uneko errealitateak eskatzen dizkigun erantzukizun politikoari helduz. Irmo jarraitu behar dugu denontzako herri hobe eraikitzeko helburuari begira.

2017ko Aberri Egun honetan, nazio mailako akordioa lortzeko konpromisoa biderkatzen dugu. Akordio berria, Euskadi euskotarren aberria delako printzipio hura errealitate bihurtzeko hartu genuen konpromisoaren aldeko indarrak batzen lagunduko diguna.

Jakin dakigu nor garen, nondik gatozen eta nora goazen. Eusko abertzaleak gara. Euskal Estatua nahi dugu. Askea. Bere patuaren jabe izango den estatua nahi dugu, herriaren borondateak gidatuko duena.

Gaur, 2017ko apirilaren 16 honetan, Aberri Eguna ospatzen eta aldarrikatzen dugu. Eta dei berezia egin nahi dugu mundu osoan sakabanatuta bizi diren euskaldunak, Ushuaiatik Red Bay-era, Melbournetik Singapurra, Donibane Garazin eta Lanestosan bizi garen euskaldun guztiok egun hau ospatu dezagun beste hainbatek 1932tik hona egin izan zuten moduan. Gaur da gure Euskal Aberriaren egun handia. Aberria lehen, orain eta beti!

GORA EUSKADI ASKATUTA!

Euzkadi Buru Batzarra

2017ko apirilaren 16a